Bertaratutako kideak:

**Sonia Rivas Borrell.**
Representante de las Universidades /Univertsitateen ordezkaria. Universidad de Navarra/Nafarroako Unibertsitatea
**Iosu Mena Sarasola**
Representante de Directores y Directoras de centros docentes públicos/Ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkaria
**Mari Luz Sanz Escudero**
Representante de las Personas con discapacidad de Navarra/Nafarroan desgaitasuna duten Pertsonen ordezkaria/ CORMIN
**Pedro Rascón Macías**
Personalidad de reconocido prestigio/Aitortutako ospea duen pertsonalitatea
**Pablo Arriazu Amat**
Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
**Lourdes Larunbe Arretxe**
Representante del Personal de Administración y Servicios de los centros Docentes/Ikastetxeetako Administrazioko eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria
**Gil Sevillano González**
Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
**Josu Reparaz Leiza**
Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra-Federación de Ikastolas de Navarra/Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria-Nafarroako Ikastolen Elkartea
**María Rodríguez Moran.**
Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres /Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria. HERRIKOA
**Laura Sanzol Olleta.**
Representante del profesorado de centros privados/Ikastetxe Pribatuetako Irakasleen ordezkaria FSIE-SEPNA
**Begoña Unzué Vela.**
Representante de la Administración

Iruñean, 2020ko abenduaren 9ko 16:50ean, bildu da Nafarroako Eskola Kontseiluaren egoitzan, Manuel Martín Iglesias jauna kontseiluburu dela, alboan adierazitako bokalak bertan direla, eta Antonio Iriarte Moncayola jauna idazkari dela, Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkura edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia, honako gai zerrenda honekin:

1. Aurreko bilkuraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.

2. Kontseiluburuaren informazio orokorra.

**3.** Hezkuntzarako COVID-19 koordinazio batzorde teknikoa.

4. 2019-2020 ikasturteko memoriaren zirriborroa.

5. 10/2020 Irizpenaren zirriborroa.

6. 2. sehilekoaren kudeaketa-kontuen zirriborroa.

7. Galderak eta eskaerak.

Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
**Mikel Lizaso Odriozola**
Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria LAB
**José Jorge Lanchas Rivero**
Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra/Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria/ANEG-FERE.
**Marta Díez Napal**
Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/ Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria SORTZEN
**Ignacio Mª Iraizoz Zubeldia**
Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra/Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria/ANEG-FERE
**Maite Pellejero Olcoz.**
Representante de Directores y Directoras de centros docentes privados concertados/Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria.
**Germán Chocarro Garbayo.**
Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria. BRITILA.
**Arantxa Ruiz Vidorreta**
Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria STEE-EILAS
**Santiago Álvarez Folgueras**
Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria HERRIKOA
**Mª Soledad Garjón López**
Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria AFAPNA
**Mikel Rodríguez Aguirreche.**
Representante de las asociaciones empresariales/Empresari elkarteen ordezkaria.

Ezin etorria adierazi dute:

**Tomás Rodríguez Garraza**
Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
**Patricia Fanlo Mateo**
Representante del Parlamento de Navarra/Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (I-E)

Etorri ez direnak:

**Cristina Bayona Saez**
Representante de las Universidades/Univertsitateen ordezkaria UPNA.
**Carmela Muñoz Ventura**
Representante del profesorado de centros privados/Ikastetxe Pribatuetako Ikarasleen ordezkaria FETE-UGT
**Arantza Zuriarrain Íñiguez**
Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
**Esther Lacasta Pérez-Ilzarbe**
Representante de las entidades locales/Toki entitateen ordezkaria.
**Eduardo Mayor Garcia**
Representantes de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/ Ikasleen Gurasoen Elkarteen. CONCAPA
**Jabi Arakama Urtiaga**
Representante del Parlamento de Navarra/Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (Geroa Bai).
**Mª José Anaut Couso**
Representante de las organizaciones sindicales/Sindikatuen ordezkaria/UGT
**Ainara González Rubio.**
Representante de las Asociaciones que trabajan por la igualdad/ Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteen ordezkaria
**Mario Fabo Caleo**
Representante de las entidades locales/Toki entitateen ordezkaria

**1. Aurreko bilkuraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.**

Kontseiluburuak kideei galdetu die ea egin behar duten aurreko bilkuraren aktari buruzko alegaziorik edo iruzkinik.

Akta onetsi da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

**2. Kontseiluburuaren informazio orokorra.**

Kontseiluburuak labur azaldu du zer parte-hartze izan duen Eskola Kontseiluaren ekitaldi eta bileretan, osoko bilkurak 2020ko urriaren 11n egin zuen azken bileratik. Estatuko Eskola Kontseiluaren bileren berri ere eman du eta, orobat, adierazi parte hartu duela hark 2020ko azaroaren 4, 5 17 eta 18an egindako bilkuretan. Orobat jakinarazi du argitaratze bidean daudela bai “Proyectos de innovación 2018/2019” monografia eta bai IDEA aldizkariaren 52. zk.

**3. Hezkuntzarako COVID-19rako koordinazio batzorde teknikoa.**

Kontseiluburuak jakinarazi du 2020ko azaroaren 19an lan-taldearen bosgarren bilera egin dela. Bilera horretan, ikastetxeetako egoeraren egungo argazki finko bat egin da, eta ikastetxeetan aurrez aurreko jarduera garatzeko hainbat proposamen aztertu dira.

**4. 2019-2020 ikasturteko memoriaren zirriborroa.**

Kontseiluburuak memoriaren edukiaren berri eman du, eta onesteko eskatu du.

Onartu dira, bertaratutako bokalek baiezkoa emanda.

**5. 10/2020 Irizpenaren zirriborroa.**

Kontseiluburuak proposatu du Batzorde Iraunkorrak onartutako zuzenketak onartutzat ematea.

Onartu da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

Kontseiluburuak proposatu du, halaber, Batzorde Iraunkorrak baztertutako zuzenketak eztabaidatzea eta eduki bereko edo antzeko edukia duten zuzenketak multzoka bozkatzea.

Onartu da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

Aurkeztutako zuzenketak multzoka eztabaidatu eta bozkatu dira. Hona hemen emaitza:

- 1., 3., 5., 8. eta 27. zuzenketak: Aldeko botoak: 1: kontrako botoak: 20; abstentzioak: 1. Bazterturik gelditu dira.

  Germán Chocarrok zuzenketen alde egin du, aurkeztutako testua hobetu eta osatzen dutela uste baitu.

  Gil Sevillanok uste du mugatu egin dezaketela familiek ikastetxea libreki aukeratu ahal izatea, eta baztertzea proposatu du.

- 2. zuzenketa: Aldeko botoak: 4: kontrako botoak: 16; abstentzioak: 4. Bazterturik gelditu da.
- 6. zuzenketa: Aldeko botoak: 2: kontrako botoak: 16; abstentzioak: 3. Bazterturik gelditu da.

  Germán Chocarrok zuzenketa aldeztu du, uste duelako testuak ez dituela irakaskuntzako kooperatibak barne hartzen.

- 7. zuzenketa: Aldeko botoak: 2: kontrako botoak: 17; abstentzioak: 2. Bazterturik gelditu da.

  Germán Chocarrok aldeztu du zuzenketa, prozesuan objektibotasun handiagoa lortzeko asmoz.

  Arantxa Ruiz zuzenketaren alde agertu da, ikastetxeen arteko lehia saihesteko.

- 10. zuzenketa: Aldeko botoak: 1: kontrako botoak: 20; abstentzioak: 7. Bazterturik gelditu da.

  Germán Chocarrok zuzenketa aldeztu du, ikastetxeek prozesuan esku-sartzerik izan ez dezaten.

  Mari Luz Sanzek uste du familia batzuek ezin izanen dutela eskaera etxetik bideratu eta, horregatik, baztertu egiten du.

  Ignacio Iraizozek adierazi du zuzenketaren edukia ez datorrela bat Lege Organikoan ezarritakoarekin.

  Lourdes Larumbek adierazi du ikastetxeen laguntza ezinbestekoa dela prozeduran.

- 11. zuzenketa: Aldeko botoak: 1: kontrako botoak: 12; abstentzioak: 7. Bazterturik gelditu da.
- 13 eta 14. zuzenketak kendu dira.

- 15. zuzenketa: Aldeko botoak: 7: kontrako botoak: 14; abstentzioak: 1. Bazterturik gelditu da.

  Teresa Modolek zuzenketaren aurkezpena aldeztu du.

- 16. zuzenketa kendu da.
- 17. zuzenketa: Aldeko botoak: 5: kontrako botoak: 14; abstentzioak: 2. Bazterturik gelditu da.

  Teresa Modolek zuzenketa aldeztu du, neurri sozialak txertatzeko bitartekoa delako.

  Mikel Lizasoren ustez, gizarte-neurririk onena errentaren irizpidean eragitea litzateke.

  Santiago Álvarez bat dator Mikel Lizasok adierazitakoarekin

- 18. zuzenketa kendu da.
- 23 eta 24. zuzenketak kendu dira.
- 28. eta 29. zuzenketak: Bertaratutako kideek aho batez onetsi dute.

  Ignacio Iraizozek zuzenketak aldeztu ditu, eta adierazi du prozesua argitzeko aurkeztu dela, uste duelako administrazioaren proposamenaren aurrean familiek ikaspostua aukeratuko dutela.

  Gil Sevillanok adierazi du onartzen dituela zuzenketak, prozesua argitzen dutela uste baitu.

- 30. eta 31. zuzenketak: Aldeko botoak: 7: kontrako botoak: 13; abstentzioak: 2. Bazterturik gelditu dira.

  Teresa Modolek zuzenketa aldeztu du.

  Laura Sanzol zuzenketaren alde agertu da.

- 32. eta 33. zuzenketak: Aldeko botoak: 7: kontrako botoak: 12; abstentzioak: 4. Bazterturik gelditu dira.
- 36. zuzenketa: Aldeko botoak: 4: kontrako botoak: 15; abstentzioak: 1. Bazterturik gelditu da.

  Germán Chocarrok zuzenketa aldeztu du, eta adierazi du zerrenda alternatiboak saihesteko aurkezten dela.

Kontseiluburuak adierazi du Batzorde Iraunkorrak baztertu egin duela zuzenketa hori

Gil Sevillanok adierazi du Lege Organikoaren erredakzioak ez duela uzten arauketaz kanpoko epe bat finkatzen.

- 38 eta 40. zuzenketak kendu dira.
- 39. zuzenketa: Aldeko botoak: 3: kontrako botoak: 12; abstentzioak: 4. Bazterturik gelditu dira

  Germán Chocarrok zuzenketa aldeztu du, eta adierazi du oreka-indizea hizkuntza-ereduen arabera aplikatuko dela eredu bat baino gehiago dauden ikastetxeetan.
- 41. zuzenketa. Aldeko botoak: 1: kontrako botoak: 20; abstentzioak: 0. Bazterturik gelditu da.

Zuzenketa guztiak bozkatu ondoren, kontseiluburuak 10/2020 Irizpena onartzeko eskatu du. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak: 20; kontrako botoak: 0; abstentzioak: 1; 10/2020 Irizpena onetsi da.

**6. 2. sehilekoaren kudeaketa-kontuen zirriborroa.**

Kontseiluburuak Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2. sehilekoaren kontuak aurkeztu ditu, eta onesteko eskatu.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek aho batez onetsi dituzte.

**7. Galderak eta eskaerak.**

Ez da halakorik izan

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, kontseiluburuak osoko bilkurara bertaratu diren kideen parte-hartzea eskertu du, eta bilera bukatutzat eman du 18:45eaan, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.